

**Arkeozoologian doktorea eta
EHUko katedraduna**

Jesus Altuna: "Arkeologiak diziplina artekoa izan behar du"

Irantzu Lexartza Artza

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa



Jesus Altuna Aranzadi Zientzi Elkarteko historiaurreko sailaren lehendakaria da, eta *Munibe* aldizkariaren zuzendaria. Bizitza osoa eman du Euskal Herriko historiaurrea aztertzen. Hainbat sari jaso ditu bere lan-jardueragatik, azkena 2003ko Giza eta Gizarte Zientzien Euskadi saria. Aitzindaria izan zen arkeozoologia arloan, eta ekarri handia egin du ondarea ikertzen eta babesten.

Zerk bultzatu zintuen arkeologian, eta bereziki arkeozoologian, aritzera?

Sorrera beti izan da interesgarria niretzat: Lurraren sorrera, biziaren sorrera, gizakiaren sorrera, Euskal Herriaren sorrera...

Seminarioan ikasketak amaitu eta gero, Madrila joan nintzen biologia ikastera, eta, Barandiaran Hego Euskal Herri-
ra itzuli zenean, harengana jo nuen eta harekin lanean hasi nintzen. Garai hartan, lanabesak, gizakien aztarnak eta halakoak baino ez ziren ikertzen hemen, baina arkeo-
logiak diziplina artekoa izan behar du. Animalien hezur-

-piloa zegoen, han, inork aztertu gabe. Nik biologia ikasi nuenez, Barandiaranek hezur horietaz arduratzea proposatu zidan eta hala egin nuen. Hezurak hartu eta Madri-la joan nintzen tesia egitera.

Arkeozoologia berri samarra zen, paleontologiaren alaba. Gizakiekin lotura izan zuten animaliak aztertzeko sortu zen, ehizatzen zituztenak, haiekin bizi zirenak... eta garai hartan inork ez zuen horrelakorik egiten estatu osoan.

Hezurren bilduma osatzen hasi nintzen, baina hemengo egoera ikusita pentsatu nuen Alemaniara joan beste erre-mediorekin ez nuela. Inguru hartan sortu zen arkeozoologia azken gerra handiaren ondoren, eta han bilduma ederra eta balia bide guztiak zituzten. Inbidia izugarria pasatzen nuen.

*“arkeozoologia
gizakiekin lotura izan
zuten animaliak
aztertzeko sortu zen
ehizatzen zituztenak,
haiekin bizi zirenak...”*

Hona etortzen nintzen bakoitzean tristeza zen hemengo egoera ikustea; baina liburu bat irakurri nahi bada, noiz-bait egon beharko da lehenengo orrian.

Aurkitutako hezurretatik zer informazio lor daiteke?

Zein animalia den jakiteaz gain, informazio handia lor daiteke. Horretarako, ordea, adin desberdinetako hezur-durak izan behar dira konparatzeko. Ekaingo hezurak



J. ALTUNA

Animalien hezur ugari sailkatu ditu Jesus Altunak.

aztertuz jakin dugu, esate baterako, gizakia maiatzetik abuztura baino ez zela bizi kobazulo hartan. Han orein-kume jaioberrien hezurdurak baino ez dira agertu, hila-bete batekoak edo bikoak, gastatu gabeko esne-hortzekin. Orein helduen hezur bakarrak, aldiz, emeenak dira. Ehiztariak bazekiten orein emea leku ezkutu batera joaten dela umea egitera doanean, eta han izaten duela kumea hamabi-hamabost egunez, bizkortu arte. Une horretan harrapatzen zituzten Ekaingo ehiztariak.

Beste kasu batean, Marizulon, Urnietan, gizaki bat agertu zen lurperatuta, beste hezurdura birekin, bata arkume batena eta bestea bururik gabeko txakur batena. Arkeozoologiak adierazten du gizaki hura ez zela ehiztaria, artzaina baizik, eta garai hartan lurperatzeko errituak edo ohiturak zituztela.

Hezurretan aurkitzen diren markek ere informazio handia eman dezakete. Gizakiek egindako markak aurki daitezke, adibidez, tresnekin, hortzekin edo suarekin eginak. Ohiturren eta bizimoduaren berri lor daiteke horien bitartez. ➔



I. LEXARTZA

Aranzadi Zientzia Elkartaren egoitza Donostian.

Kutxa bete hezur

Hezurrez betetako kutxa bat hartuta joan zen Jesus Altuna Madrilra. Ez zuen lan erraza aurrean, ordea, bere tesi-zuzendariak ere ez baitzekien ezer arkeozoologiaz. Hezurak sailkatu ahal izateko bilduma bat behar zela ikusi zuten, eta hori egiten ere hutsetik hasi behar izan zuen.

Hala, Dominguín toreatzaileak Madrilgo jatetxe batean lagunekin ehizatutako orein bat jan behar zuela jakin zuenean, jatetxera joan eta afariaren hondarrak eskatu zituen. Jatetxeko langileek esan zioten ez zela haragirik geratzen, eta harri eta zur geratu ziren berak haragirik ez zuela behar esan, eta hezurrekin poz-pozik alde egin zuenean. Hezur-bildumaren lehen pausoa izan zen.

Vespa batean ibili zen Iberiar Penintsulan gora eta behera hezurren bila. Garai hartan, Koro Mariezkurrena ezagutu zuen, eta bidea elkarrekin egiten hasi ziren. Orduan egundoko aldaketa ekarri zien Seat 600 bat erosi zuten, eta, noski, han Vespan baino askoz hezur gehiago sartzen zen. Geroago, Afrikatik, Arktikotik, Asiatik eta urruneko beste leku batzuetatik ere ekarri zituzten hezurdurak. Eta pixkanaka bilduma handi bat egin zuten, eta horretan jarraitzen dute, gaur egun estatu osoan dagoen bildumarik onena osatuz. Atzerriko ikeritzaileen artean ere ospe handia du. Zalantzarik gabe, bizitza osoko lana.

Nire beste ikerketa-lerro bat labarretako artea da, eta arkeozoologiak laguntza handia ematen du horretan ere. Garrantzitsua da garai bakoitzeko animaliak ezagutzea, irudiak interpretatu ahal izateko.

Gaur egun, zertan da Euskal Herrian arkeologia-ikerketa oro har? Eta arkeozoologia?

Asko aurreratu da, batez ere unibertsitatea sortu zenetik. Gaur egun alor asko betetzen ditugu, eta literatura idatzi eta argitaratzen da. Hemen esparru askotako zientzialariak aritzen gara, palinologoak, sedimentologoak, lanabesak aztertzen dituztenak, eta abar.

Ni hasi nintzenez, ugaztunekin hasi nintzen, hori baitzen gehien zegoena. Orain, Euskal Herrian baditugu beste arkeozoologo batzuk ere lanean, eta asko osatu dira lan-taldeak.

Okerrena da lan honekin bakarrik ezin dela bizi. Garai batean irakaskuntzan lanpostu asko sortu ziren, eta normalean ikerketa horrekin batera joaten zen. Irakaskuntza gustatuz gero askoz hobeto, eta niri asko gustatu izan zait. Gaur egun, ordea, ez dago horretan lanik, eta ikerketarekin bakarrik ezin da bizi. Prestakuntza ona zuen jende askok kanpora joan behar izan du. Giza baliabideak badaude, baina bestelakoak falta dira.

Estimatzen da arkeologoaren lana?


Herriak estimatzen du. Agian ez dute zehatz jakingo zertan ari garen, baina uste dute zerbait garrantzitsua ari garela egiten, gure arbasoen gauzak ikertzen ari garelako.

Mendizaleen laguntza handia izan dugu, adibidez. 1982an mapa arkeologikoa egin genuenean, megalitoen eta kobazuloen berri ematen duena, mendizale askok erosi zuten. Mapan ez zegoen zerbait berezia ikusiz gero, deitu egiten ziguten horren berri emateko. 1990ean beste mapa bat argitaratu genuen megalitoekin bakarrik, eta askoz gehiago agertzen ziren, zortzi urte horietan asko aurkitu zirelako.

“gaur egun ezin da ikerketarekin bakarrik bizi. Prestakuntza ona zuen jende askok kanpora joan behar izan du”

Oraindik ere abisatu egiten digu jendeak zerbait aurkitzen duenean, eta zerbait apurtzeko edo desagertzeko arriskuan dagoenean ere bai, eta gu joan egiten gara. Beti ez gara garaiz heltzen, baina saiatu saiatzen gara.

Bestalde, garai batean erakundeek ere oso iritzi txarra zuten guri buruz, batez ere erregimen-aldaketa etorri arte, Euskal Herria aztertzen genuelako. Ondoren salto handia eman genuen, baina ez da nahikoa. Nik uste dut laguntza eta borondate gehiago behar direla ondarea ikertzeko eta zaintzeko.



Arkeozoologia eta labarretako artea izan dira Jesus Altunaren lan-ildo nagusiak.

I. LEXARTZA

Zaila da ondarea babestea?

Batzuetan bai. Ekain aurkitu zenean, esate baterako, turismorako zabaltzeko presio handia izan genuen. Azpeitiko gazte bik aurkitu zuten 1969an, eta atea jarrita egon arte ez genuen berria zabaldu. Bai Zestoako alkateak, bai probintziako agintariek eta baita Madrilgoek ere, publikoari irekitzea nahi zuten, Altamira bezala. Garai hartan Altamiran hiru mila pertsona sartzen ziren egunean, eta horregatik hondatu zen. Lascaux ere, Frantziako kobazulo ederrenetako bat, turismoagatik hondatzen ari zen, eta horregatik esan genuen ez genuela irekiko. Asko kostatu zitzaigun, ordea.

Agintariei esan genien sarreran zegoen aztarnategia aztertu arte itxita edukitzeko, eta, zorionez, onartu egin zuten. Laster hil zen Franco. 1975ean bukatu genituen hango indusketak, eta itxita geratzea lortu genuen. Altamiran ordurako esaten hasiak ziren gauzak asko ari zirela okertzen. Ekain oso ondo kontserbatzen da ez delako turismorako zabaldu.

*“argitaratzea funtsezkoa
da norberaren lana
ezagutarazteko.
Argitaratzen ez den
lana ez da ikerketa,
hobbya da”*

Bestalde, mendi eta basoetan lan ugari egiten dira, askotan beharrezkoak, baina ondarea ez dute kontuan hartzen. Orain dela ez asko, Igeldoko gainean trikuharri bat desegin zuten makinatzar batekin. Instant batean hondatu zuten 4.000 urte iraun zuen monumentu bat. Ezin izan dugu aztertu zer esanahi izan zezakeen eraiki zuten gizakientzako. Agian hildakoarekin lotura mantentzeko egin zuten, edo lurperatuta zegoen lekuko bidea erakusteko, agian bakardadea jasangarriagoa egingo zuen, eta malakoak ez hain garratzak... Eta bat-batean lanabesak eta dena han, betiko galduta ez dakit zenbat tona lurren artean. Horrelako kasu asko dago, eta ondarea zaindu eta betiko gal ez dadin laguntza handia behar da.

Atzerritik nola ikusten da hemen egiten den lana?

Ondo, batez ere lanak argitaratzen direlako. Guk hemen *Munibe* aldizkaria publikatzen dugu, eta arkeologia-erakunde askorekin trukutzen dugu. Horri esker, atzerritik bostehun aldizkari inguru jasotzen ditugu, horien artean Europako gehienak. Horrela, gure lana zabaltzeaz gain, liburutegi eder bat osatzen dugu eta egunean gaude. Euskal Herrian kanpora gehien zabaltzen den aldizkaria dela uste dut. Argitaratzea funtsezkoa da norberaren lana



A. ARRIZABALAGA



B. KORTABARRIA

Euskal Herriko aurkikuntzarik garrantzitsuenetakoak dira Lezetxiki eta Ekain.

ezagutarazteko. Argitaratzen ez den lana ez da ikerketa, hobbya da. Lan bat kaleratzen denean, besteekin egiten den trukea oso aberasgarria da. Besteek esaten dute zer dagoen ondo egina eta zer ez, eta beste lan batzuekin konparatzeko aukera egoten da.

Kanpotik ikertzaile asko etortzen dira gure egoitza honetan zaintzen dugun materiala ikusteko eta aztertzeko. Gainera, materiala oso egoera onean aurkitzen dutela esaten dute, dena ondo sailkatuta eta banatuta.

Zein izan da urte hauetako guztietako zure lorpenik kutunena?

Ekain, noski, horietako bat izango litzateke, baina badira beste asko, txikiagoak, baina poz handia eman didatenak. Esate baterako, hasi nintzenez, azkonar jatun baten matrailezurra aurkitu nuen Lezetxikiko hezurren artean. Hasieran ez nekien zer zen. Jatuna klima hotzekoa da, eta Iberiar Penintsulan aurkitutako lehenengoa izan zen. Orduan ez genuen jatunaren hezurdurarik konparatzeko, eta deskribapenengatik eta ikonografiarengatik pentsatu nuen hori izan zitekeela, eta gero ziurtatu egin ahal izan nuen. Klima hain hotza zela adierazten zuen animalia agertzeak eta lehendabizikoa izateak egundoko poza eman zidan. Beste aurkikuntza garrantzitsu bat Lezetxikin aurkitutako giza hezurra da, Atapuercan aurkitutakoekin zerkusia izan dezakeena. 